

cómplices

2020
BERDINTASUNAREN
MEMORIA

ó



BERDINTASUN PLANAREN
BERRIKUSPENAREN ALDIROKO JARRAIPENA,
2017-2020 PLAN ESTRATEGIKOAN
ZEHAZTUTAKO BERDINTASUN
KONTZEPTUAREN IKUSPEGIA
ESPARRU HARTUTA

cómplices



IKUSPEGIA

***Eroskin berdintasun kontzeptu
zabala darabilgu,
Eroski 'zurekin'
estrategiarekin koherentea.***

Kontzeptu honen zutabeak hauek dira>

- **Pertsona guztiek aukera berberak.**
Aukera horiek ohiko kudeaketa tresnak garatuaz lortzen dira: sustapena, prestakuntza, ordainsaria, ibilbidearen gorabeherak...
- **Pertsona guztiek erantzukizun berberak.**
Bateratze neurriak landu eta erabiltzea, ardurakidetasunean arreta berezia jarriaz.
- **Enpresa kultura eta berdintasunean duen eragina.**
Gauzak egiteko moduak berdintasunean eragiten du. Ingurunearekin elkarlanean.
- **Osasuna eta ongizatea ardatz estrategiko**
Eroski 'zurekin' bilakatzea, berdintasun kontzeptua osatuaz.
Ekintzak eta ekitaldiak antolatu_
 - Lan giro osasungarriez.
 - Sexu, genero eta lan jazarpenik gabeko eremuak.
 - Berdintasunezko gizarte erantzukizuneko ekintzak.



PERTSONA GUZTIEK
AUKERA BERBERAK

EMAKUMEEN IKUSGARRITASUNA GIZONEZKO LANPOSTUETAN

- Barne komunikaziorako ditugun bideetatik ikusgai egiten da gure Madrilgo (M50 eta Ciempozuelos) Plataformaren kudeaketa taldea.
- Kudeaketa taldea osatzen duten 9 pertsonetatik 7, gerentea barne, emakumeak dira.
- Talde honek 1.000 saltokiri ematen die zerbitzua.



nexo

Logistika femeninoan idazten da

Eroskiren plataforma nazionalako koordinazio-taldea, M50 eta Ciempozuelosek osatua, 9 pertsonak osatzen dute, eta horietatik 7 -kudeatzailerak barne- emakumeak dira. Purificación Ferreiro kudeatzailerarekin eta Laura Barral Pertsonen arduradunarekin hitz egin dugu, eguneroko 140.000 formatuen kudeaketaren buru den egunerokotasunaz.

2020ko martxoaren 6an argitatu da

SUMMA PROGRAMAREN EDIZIO BERRIA

- Summa programa talentua garatzeko programa bat da, potentziala duten pertsonekin lan egitea helburu duena, pertsona horiei gaikuntza eta hazibidea emate aldera; oraingo langintza hobetu dezaten eta bihar-etzi maila handiagoko posizioak bete ahal izango lituzketen ordeko pertsonen aulkia edukitzeko asmoz.
- 2020an beste edizio bati ekin zaio 13 parte-hartzaileekin, horietatik 12 emakumeak.



ENPLEGUA SORTZEA KOOPERATIBAKO BAZKIDE GISA

- Eroskin emakumeen enpleguaren hautua egiten jarraitzen dugu. 2020 urtealdian 244 lanpostu berri sortu ditugu, Eroski Koop. Elkarteko kide bihurtu direnak bazkide jabe eta protagonista gisa. Horietatik guztietatik % 80 emakumeak dira.





PERTSONA GUZTIEK
ERANTZUKIZUN BERBERAK

SEME-ALABAK ZAINTEKO ESZEDENTZIA, EUSKO
JAURLARITZAREN 164/2019 DEKRETUAREN ESPARRUAN

- Lan utzialdi horrekin seme-alabak zaintzearen arloan ardurakidetasuna bultzatu nahi da.
- Horri esker, seme-alabak zaintzeko utzialdi egoeran dauden langileentzako laguntzak jasotzeko modua ematen da adingabearen lehen bizi urtean, betiere dekretu horretan onartutako dirulaguntza jasotzeko Eusko Jaurlaritzak jarritako baldintzak betetzen badituzte.





ENPRESA KULTURA ETA
BERDINTASUNEAN DUEN ERAGINA

DONOSTIAKO MARÍA REINA ESKOLARI DIRULAGUNTZA, LILATOIAN IZENA EMATEKO

- Eroskik ikastetxe honi laguntzen dio berdintasunaren aldeko Donostiako lasterketan parte hartzeko.



nexo


'Cómplices' programak belaunaldi berrien arteko genero-berdintasunaren hazia ereiten du


2020ko martxoaren 6an argitaratua

Donostiako Maria Reina ikastetxea, 'Ez naiz ikusezina. Aniztasunak aberastu egiten du,' jardunaldian parte aktiboena hartu zuen ikastetxeetako bat izan zena, parte hartzen du Donostiako berdintasunaren aldeko Lilat on lasterketan, Eroskiren Berdintasuneko Behatokiaren laguntzarekin.

MARTXOAREN 8KO SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

- Lantokietarako kartelen eta barne komunikazioaren bitartez eta barne komunikabideetatik iritzi artikulatuak zabalduaz abiarazitako kanpaina.





EROSKI TARGET GENDER EQUALITY-REN KIDE DA

- Target Gender Equality genero berdintasuna bizkortzeko programa bat da, Nazio Batuen Munduko Itunean parte hartzen duten enpresetarako. Helburua emakumeen ordezkartza eta lidergorako helburu korporatibo handiguratsuak jarri eta lortzea da.



The graphic is a dark blue rectangular banner. On the left, it features the UN Global Compact logo (a globe with a laurel wreath) and the text "TARGET GENDER EQUALITY" in white, followed by the colorful circular logo of the Sustainable Development Goals. Below this, the text "37 ENTIDADES ESPAÑOLAS YA FORMAN PARTE DE LA INICIATIVA" is written in large, bold, white capital letters. At the bottom left, a light blue horizontal bar contains the hashtag "#TargetGenderEquality" in white. On the right side of the banner, there is a photograph of three women in professional attire. The woman in the foreground is wearing glasses and has her hands raised as if speaking or gesturing. The background is decorated with several small, overlapping squares in red, blue, and white.

GURE ESTATUTUAK ETA BARNE ARAUDIA GENERO HIZKUNTZARA EGOKITZEA

- 2020ko uztailaren 15eko Batzar Orokorrean onartu ziren gure Estatutuak eta Barne Araudia aldatu egin zirenez, dokumentu biei egokitu zaie hizkuntza genero ikuspegitik.



GENERO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ALARMA-EGOERAKO KANPAINAK

- COVID-19aren krisiagatik etxean bakartuta egon beharrak indarkeria matxistako egoerak ugaltu zituen eta zailagoa egin zuen emakume biktimak ohiko baliabideetara iristea.
- Berdintasun Ministerioak eta hainbat autonomia erkidegotako berdintasun arlo askok abiarazitako informazio kanpaina sartu da EROSKI, genero indarkeriaren biktimei eskura dituzten zerbitzuen berri emateko.
- Horregatik, gure supermerkatu eta hipermerkatuetan kartelak ditugu ikusgai emakumeen aurkako indarkeria egoera, edo susmoa, dagoenean dei egin daitekeen harreman telefonoen zenbakiekin: 112 eta 016.
- Eta gure taldearentzako barne komunikazioarekin sendotzen da.

'MASKARA 19' EKIMENEGO LANKIDETZA

- Osotasun fisiko edo sexuala arriskuan duten emakumeek farmaziara joan eta 'maskara 19' bat eska zezaketen.
- Kanpainak azaltzen zuen "Etxean tratatu txarra edo sexu erasoa jasaten baduzu, zoaz botikara eta eskatu bizia salbatuko dizun maskara".



Mascarilla-19

Si estás sufriendo malos tratos en casa o ante una agresión sexual, vea la farmacia y pide la mascarilla que te salvará la vida.



Pide "Mascarilla-19"
En la Farmacia sabrán que tienen que llamar al 016.

GAY HARROTASUNAREN EGUNA

- Gure barne komunikabideetako kartel eta artikuluen bitartez sentsibilizazio kanpaina egin dugu, eta bat egin dugu LGTBI taldeak bere egunean egiten dituen erreibindikazioekin eta aniztasunaren ospakizunarekin.



LEADERS IN TECH KONFERENTZIAN PARTE HARTZEA

- Azaroaren 6an, ostirala, 'Leaders in Tech' egin zen Bilbon, eta emakumeek gidatutako azken aurrerapen teknologikoak jorratu ziren. Mari Luz Garín Eroski Taldeko Informazio Segurtasunaren, Prozesuen eta Informazioaren Teknologien arduraduna izan zen konferentzian parte hartu zuten nazioarteko adituetako bat.
- Jardunaldi hori INNOLAB Bilbaok antolatu zuen, eta enpresei eta erakundeei teknologiek ematen dituzten aukerak ezagutaraztea helburu hartuta: besteak beste, adimen artifizialak, konputazio kuantikoak, blockchainak eta zibersegurtasunak



BULARREKO MINBIZIARI BURUZ SENTSIBILIZATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

- Aurten ekimen honekiko atxikimendua erakusten dugu, bihotz txiki bat bere lekuan apaingarri duen kamiseta modelo bat hainbat koloretan gure hipermerkatu sarean merkaturatuaz. Saldutako elastiko solidario bakoitzeko, Eroskik 3 euro eman zizkion AECC elkarteari, ikerketari eta gaixotasuna jasaten duten pertsonen laguntzeko.
- Era berean, barne kanpaina bat egin da gure Intraneten sentsibilizaziorako kartelak eta artikulua jarriaz.



Camisetas Solidarias

2020ko urriaren 14an argitaratua

nexo

Lazo arrosak zenbaki gorrien kontra

Bularreko minbiziaren aurkako borroka fronte asko ditu. AECCk gaixotasunaren ondorio ekonomikoak nabarmendu ditu aurten Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunaren kanpaina. Urtero egiten da, urriaren 19an. Eroskin, gure harri-koskorta ekarri dugu, eta gure hipermerkatuetan elastiko solidarioak jarri ditugu salgai. Saldutako unitate bakoitzeko, 3 euro bideratuko ditugu AECCra.

complices



un fuerte abrazo
a todas las personas que están en la lucha.



GENERO INDARKERIAREN EGUNEKO KANPAINA

- Berdintasun Ministerioak antolatzen dituen mintegi eta eztabaidetan parte hartzeko aukeraren berri ematen da erakundearen barruan, eta egutegia eta estekak ezagutarazten dira.
- Horrekin batera barne sentsibilizazio-kanpaina bat egin da barruko komunikabideetan kartelak eta argitalpenak jarriaz.





Bat gutxiago ere ez

Azaroaren 25a.
genero-indarkeriaren
aurkako nazioarteko eguna.

cómplices

cómplices

EUSKADIKO ENPRESETAKO GENERO BERDINTASUNARI BURUZKO AZTERLANEAN EROSKIK PARTE HARTU

- Azterlan honen jomuga enpresako erabakitze maila guztietan genero lidergo orekatua bultzatzea da.
- Gizonak ere Ontzikide elkartearen, Bilboko Merkataritza Ganberaren eta Deustuko Unibertsitatearen elkarlanaren emaitza da.
- Helburua lidergo generoaren oreka egoeraz eta enpresa kulturaz diagnostikoa egitea da, eta Eroskin gure taldeko batzuei inkestak eginaz laguntzen dugu.

EROSKIREN LAGUNTZA JOSTAILU EZ-SEXISTA KANPAINAN

- Eroskin Aldundiaren jostailu ez-sexistei buruzko kanpainaren zabalkundea egin da dendetan_
 - Jostailuen ataleko linealetako kartela, jatorrizko sormenarekin.
 - Aldunditik bidalitako megafonia esaldiak.
 - Sare sozialak. Bizkaian segmentatutako Facebookeko aipamenak

27



COMPLICES HOBETU NAHIAZ ELKARRIZKETAN

- Eroski Taldeko Berdintasunerako Programak antolatutako urteko topaketa ingurune digitalera aldatu da erresilientziako hiru historia hurbiltzeko.
- 'Jakín ahal dela' bizirik maitatzearen, aurkakotasunak gainditzearen, kontatzeko bizitzearen eta beste batzuei ahal dela erakusteko indarrari buruzko kontaketa korala da. Bizirik atera diren hiru gonbidatuek beren esperientziaz, borrokaz eta ikasketaz hitz egiten dute, bidea galdu ahal izan dutenei argia emateko asmoz.
- Protagonistak dira Marina Marroquí, genero indarkeriatik bizirik atera zena, Mbaye Gil, 15 urte zituela itsasoratu zen galdu-gordean berarentzat eta etxekoentzat etorkizun hobe baten bila, eta Edurne Pasaban, zortzimilako guztiak egin zituen lehen emakumea eta hala ere depresioa izan zuena oztoporik lazgarriena.

cómplices



JAKIN AHAL DELA

Egoerak
gainditzearen
inguruko
solasaldiak



1/3 Topaketa
Marina Marroquí



2/3 Topaketa
Mbaye Gil



3/3 Topaketa
Edurne Pasaban



Eroski Taldearen Cómplices programako 2020ko topaketek ez dute hutsik egin nahi urteroko hitzorduan, pandemia-garaia bizi dugun arren. Horregatik, aurtengoan, topaketak era birtualean egingo ditugu, bideoan grabatutako hiru elkarrizketaren bidez.

'Jakín ahal dela' goibururekin, egoerak gainditzeari buruzko elkarrizketek ez zaituzte epel utziko.

Marina Marroquí genero-indarkeriaren biktima izan zen eta bere esperientzia kontatuko digu; **Mbaye Gil** pateran iritsi zen Kanarietako kostaldera, eta egunetako bidala izugarri hartaz mintzatuko zaigu; gainera, kirol-ibilbide arrakastatsua izan duen **Edurne Pasabanek** argi eta garbi azalduko du bere buruz beste egiteko hiru saloren ondoren nola gainditu zuen egoera hura.

Aurten, Cómplices topaketen hitzordua nexo.eroski.es helbidean duzu.

Laster, hiru elkarrizketetatik lehena plazaratuko dugu. Ahal dela jakiteko, zorritxarrak gainditzeko ahalmena oso berrun sortzen dela jakiteko.



- Irizti-artikulua 'Mujer emprendedora' argitalpenean, 'Cómplices' eta haren ibilbidea, baita kooperatibaren berdintasun-zutabeei buruz ere.
- 'Cómplices' gogoeta egiten du hamabost urteko ibilbidearen ondoren izan dituen lorpenei buruz, bai eta aukera-berdintasunaren eta aniztasunaren alde ahotsa helargzteko berehalako erronkei buruz ere.

Lehrstuhl für Umweltökonomie, Planung und Politik
Ökonomische Fakultät der Universität Wien
Wirtschaftsuniversität Wien

'TU LANKIDE' RENBERTSIO DIGITALEAN IRITZI-ARTIKULUA

- Iritzi-artikulua MONDRAGON Taldearen 'TU Lankide' argitalpen digitalean.
- 'Cómplices' artikuluan, 15 urtetik gorako ibilbidea lantzen du, berdintasunaren eta berdintasunezko antolaketaren alde lan eginez.
- Gaur egungo gizartean kooperatiba-printzipioek duten indarraldia eta kooperatiba-komunitateari eta, oro har, gizarteari berdintasun-mezua helarazteko beharra ere aztertzen dira.
- 'Cómplices'ek eskua luzatzen die beste erakunde batzuei eta berdintasunaren aldeko proiektu bateratuetan laguntzera gonbidatzen ditu.



OSASUNA ETA IRAUNKORTASUNA
BERDINTASUNARI TXERTATUA

URTEBETE ARGI EGITEN 'ZERESANA DUTEN EMAKUMEEI'

- Eroskin, osasunaz eta iraunkortasunaz dugun konpromisoaren eta jarreraren osagai bat denez, 'Zeresana duten emakumeen' lana eta historia zabaltzen dugu.
- Eroskiren "Zeresana duten emakumeak" programak urtebete darama bere kamerak, argiak eta bere besaulki gorri adierazgarria eramaten, elkarrizketatzen dituen emakume bikainak dauden lekura. Aldi horretan, istorio ausart eta inspiratzaileen bilaketak Euskadi, Nafarroa, Aragoi, Madril edo Gaztela eta Leongo probintziak arakatzera eraman du lantaldea.

33






BERDINTASUNAREN
BEHATOKIKO AGINTE TAULA

		31 enero 2020		31 enero 2021		
		% Mujeres	% Hombres	% Mujeres	% Hombres	Evolución
TIPO CONTRATO	Personas Total	80,84%	19,16%	79,96%	20,04%	=
	Personas socias	83,30%	16,70%	83,27%	16,73%	=
GRUPO PROFESIONAL	Puestos Dirección (Grupo Directivo y Gestor)	44,40%	55,60%	44,96%	55,04%	=
	Puesto Mando (Grupos Directivo, Gestor, Mando, Responsable)	75,35%	24,65%	75,12%	24,87%	=
ABSENTISMO	Horas IT Enfermedad	86,48%	13,52%	86,34%	13,66%	=
	Horas IT Accidente	73,77%	26,23%	77,40%	22,60%	▼
DESARROLLO DIRECTIVO	Persona en formación directiva	31,00%	69,00%	48,00%	52,00%	▲
	% personas con Guarda Legal	96,05%	3,95%	95,74%	4,26%	
CONCILIACIÓN REDUCCIÓN JORNADA	% personas con Cuidados Familiares	93,57%	6,43%	93,63%	8,37%	
	% personas con Reducción Voluntaria	94,00%	6,00%	89,58%	10,42%	
	Total personas Reducción Jornada	1.229		1.121		▼
	% Total personas Reducción Jornada	11,09%		9,61%		▼
CONCILIACIÓN EXCEDENCIAS	% personas con Guarda Legal	98,04%	1,96%	95,15%	4,85%	
	% personas con Cuidado Familiares	93,75%	6,25%	96,15%	3,85%	
	% personas Excedencia Voluntaria	85,58%	14,42%	86,30%	13,70%	
	Total personas con Excedencia	333		129		▼
	% Total personas con Excedencias	3,01%		1,11%		▼
DESARROLLO PROFESIONAL	Horas Formación	70,00%	30,00%	71,43%	28,57%	▲
	Tutorías/Monitores	89,00%	11,00%	50%	50%	▼
DESARROLLO SOCIO EMPRESARIAL	Horas Formación socioempresarial	80,00%	20,00%	75,36%	24,64%	▼
PROMOCIÓN	Personas promocionadas	78,95%	21,05%	81,20%	18,80%	▲

cómplices



ó